

ipintzen; Jainkoaren Herritzat hartzen du Eliza, eta eliz elkartearen muina fededunen elkarte delat nabarmentzen du, bai eta horren zerbitzuan daudela eliz *ministro edo zerbitzariak; bestalde, Elizaren eta klase herritarren arteko elkartasunaren beharra nabarmentzen du, eta horien *askapen-borrokari Eliza atxeki behar zaiola irakasten, aldi berean eliz hierarkiaren eta klase bteredunen kidetasuna salatuz. Horregatik, hierarkiaren eta Eliza herritarraren arteko harremanak tirabirazko eta gatazkakorrak izan ohi dira sarritan.

Latin Amerikako iraultza-mugimenduekin batera indartu dira bereziki eliza herritarrak, eta askapen-teologiarekin loturik gahienbat.

Euskal Herrian ere aski zabaldu da aspalditxo Eliza herritarraren mugimendua: bide horretatik doaz Euskal Herriko Kristau-Elkarte Herritarren Batzarrea, Euskal Herriko Apaizen Pastoraltzako Koordinakundea, Herria-2000-Eliza aldizkaria, eta, neurri batez, SAK (*Sozialismoaren Aldeko Kristauak) ere bai.

Eliza jakobita

Antzinako Antiokiako *patriarkatzan, Kalzedoniako Kontzilioaren ondoren, *monofisismoa irauli zen eliz elkarte. Syrian eta Irak-en dago kokaturik.

Jacob Baradaai izan zen eratzaillea, VI. mendean; 120.000 inguru dira kideak. Patriarkaren aulki-hiria Damasko da.

Errito berezia du, izen berekoa; hizkuntzak, berriz, syriera eta arabiera ditu.

Eliza Katolikoa

Eliza Katoliko Erromatarra esaten dute protestante eta anglikanoek. Jatorriz, kristau-fedea berorren osotasunean eta jatoritasunean gordetzen duena da, horretatik alden du diren eta kristau-tradizioaren eta fedearen parte bat bakarrik aitortzen eta gordetzen duten *sekten aurretikoa.

Alde horretatik, Eliza Katolikoa eta Eliza Ortodoxoa, biak ziren Kristoren egiazko Elizaren tituluak. Baina *Ekialdeko Zismaren ondorioz, Eliza Ortodoxoa Konstantinopoli-ko *patriarkatzarekin *elkartasun osoan gelditu zen Kristoren Elizaren partearen izen propio bihurtu da; Erromako aitasantuzarekin elkartasun osoan iraun zuena, berriz, izendatzen da Eliza Katolikoa.

Kristau-Konfesioetan nagusia eta handiena da Eliza Katolikoa: Erromako aita santuaren jurisdikziozko lehentasuna aitortzen duten fededunen elkarte, alegia.

Anglikanoek "erromatarra" eransten diote, Eliza Ortodoxoari eta anglikanoari berrari buruz bereizteko, hauek ere Elizaren katolikotasunaren barnean sartzen dituztelako. Mundu anglo-germaniarreko katolikoek beraiek ere, "Eliza Katoliko erromatarra" erabiltzen dute sarritan, *Konfesio edo Komunio Katolikoa adierazteko.

Eliza Ortodoxoak eta protestanteek ez bezala, *Erromatar Eliza Katolikoak uste du bere baitan osorik betetzen dituela Kristoren Elizaren elizatasuna eta horren dohainak; bereziki horren *katolikotasuna; eta horrela beragan dirauela etengabe Kristoren Eliza jatorrikoak.

Eliza Anglikanoaren fedearen arabera, ordea, Eliza Ortodoxoak, "Erromatar Eliza Katolikoak" eta Eliza anglikanoak berak; hirurek batean gauzatzen dute hasierako kristoren Eliza banandugabea.

"Bat, santu, katoliko eta apostolutarra" aitortzen dute katolikoek beren Eliza, eta horren egiazkotasunaren ezaugarritzat eta argibidetzat erabiltzen ditu sarritan teologia tradizionalak dohain horiek. Ik. Elizaren ezaugarriak.

Soziologiatik begiraturik, Eliza Katolikoaren baitan *bataioa hartu duten eta *heresiaz, *zismaz edo *apostasiaz espreski alden du ez diren edo *eskomikua ezarri ez zaien guztiak dira katolikoak.

Bataioaz gain, beste sei *sakramentu ezagutzen ditu Eliza Katolikoak: Eukaristia edo *aldareko sakramentua, *Sendotza, *Ezkontza, *Ordena eta *Gaixoen Oliadura. Hauen inguruan osotzen eta egituratzen da gurtza katoliko osoa.

Erliziozko *bitartekotza nabarmendu du Eliza Katolikoak bere irakasbidean: Hierarkiak betetzen du Jainkoaren eta fededunen arteko bitartekotza, eta hari aitortzen diote fededunei irakasteko, sakramentuen bidez horiek santutzeko eta elkarte eraentzeko eskumen sakratua. Honetan bereizten da Eliza protestanteetatik batez ere, hauek *hierarkiaren eta *laikoen arteko bereizkuntza teologikoa ia suntsitu egiten dutenez, giza bitartekotza erlijiozkoa ukatzean.

Eliza Katolikoaren egitura hierarkikoa *apezpiku-kolegioan oinarritzen da, *aita santua buru duela. Bi alderdi bereizten dira nabarmenki egitura horretan: Eliza mendebaldarra edo latinoak; eta Eliza ekialdetarrak. Latinoa erdirakoa izan da oso, bai *liturgi aldetik, bai hierarki aldetik (*apezpikuak aita santuak izendatzen ditu), bai eta *araubide aldetik (*Zuzenbide Kanonikoaren kode bakarra dago indarrean); ekialdeko Eli-

Eliza Katoliko trikiak

za Katolikoan *patriarkatzek autonomia eta berezitasun handiagoak dituzte; hamar. dira ekialdeko patriarka katolikoak.

Hierarki egitura oso landua eta zurrunda du Eliza Katolikoak, aita santuarengandik hasi eta azken *ministroetaraino. Aita santuak izendatzen ditu apezpikuak eta lekuko Elizen artzain edo arduradun nagusiak; apezpiku diozesiarrek beraiek zuzenean izendatzen dituzte beren azpiko ministroak (*presbiteroak, *diakonoak, etab.); horri oinarri teologikoa ezagutzen dio gainera fede katolikoak, ministro guztiek apezpikuaren apaizgo nagusian hartzen bait dute parte. Bestalde, *Apezpiku-kolegioari (osoan harturik) eta *aita santuari berari fedeko gauzetan irakaslegoko *hutsezintasuna aitortzen die Eliza Katolikoaren fedek.

Garrantzi berezia dute Eliza Katolikoan *erlijiosoen kongregazioek, emakumezkoenak nahiz gizakumezkoenak. Azken hauetakoetako kide batzu apaizak edo *mezakoak izan ohi dira; besteak, berriz, ez-mezakoak edo *anaia legoak.

Eliza Katolikoak bere burua aitortzen du gizon-emakume guztientzat salbamenerako birtartekari, nahiz eta beste kristau-Konfessioak ere partez horretarako bideak direla ezagutu, baita nolabait beste erlijioak ere horretarako baliagarriak izan daitezkeela onartu.

Ik. Katolizismoa; Elizaren katolikotasuna; Elizaren batasuna; Elizaren santutasuna; Elizaren apostolutasuna; Ortodoxia; Protestantismoa; Aita santua; Eliza Ortodoxoak; Eliza anglikanoa.

Paulo Agirrebaltzategi

Eliza Katoliko txikiak

Horrelako deitura eman ohi diote Frantzia Eliza Katoliko erromatarretik sahiesuriko zenbait elkarte txiki Eliza gisa eratuak. Bereziki Napoleonen eta Erromaren arteko *konkordatua onartu ez zutenek Frantzia eraturikoari eta Vatikanoko I. Kontzilioaren ondoren, aita santuaren *hutsezinaren definizio dogmatikoa ukatu zutenek eraturiko elkarteei eman izan diete deitura hori.

Ik. Eliza Katolikoak.

Eliza kongregazionalistak

Erljio-alorrean kanpotikako edonolako ezarpen, zibil nahiz erlijiozko, ukatuz, fededunen elkartze borondatezkoan oinarritzen den barne-organizazioa dutenak. Kristau guztien apaizgoa nabarmentzen dute, eta Kris-

to aitortzen dute Elizaren buru eta gidari bakartzat.

Hasierako Elizaren eredia horixe zela ueste dute. Hala ere, gaur egun irekiak daude gehienbat bestelako eliz eredutara: episkopalianora eta presbiterianora. Ik. Eliza episkopalianoa; Eliza presbiterianoak.

Ingalaterrako Eliza ofizialetik aldenuz sortu ziren XVI. mendean horrelako eliz elkarteak. Hortik zabaldu ziren A.E.B. etara ere.

Elkarteak aukeratu eta mantendu ohi ditu bere *ministroak, *diakonoak eta predikariak.

Eliza kongregazionalistak ez dira erabat bakarturik bizi; ia hasieratik bertatik sortu zituzten beren arteko federazio gisakoak, baina *elkarte bakoitzaren beregaintasunari eutsiz. 1972an Ingalaterrako eta Gales-eko eliz elkarte kongregazionalista gehienak eta presbiterianoak Eliza Erreformatu Batua eratu zuten.

Kongregazionalismoa orokorki hartuz gero, *Eliza baptistak eta *kuakeroak ere kongregazionalistak dira.

Ik. Kongregazionalismoa; Batzarrea.

Eliza koptoa

Kaltzedoniako Kontzilioak definituriko Jesukristoren bi zerizanen irakatsia onartu ez zuten Egiptoko kristau monofisitek osotzen dute. Alexandriako *patriarka da Elizaren burua. Bertako hierarkia *apezpikuek, *apaizek eta *diakonek osotzen dute.

Errito berezia du: koptoa, antzinako egiptziarra, arabiera sartu aurretik herrian mintzatzen zutena, erabiltzen duena.

Hiru milioi t'erdi inguru dira orain koptoak.

Ik. Monofisismoa; Eliza ekialdetarrak.

Eliza latindarra

Errito latinoan erabiltzen duena; nahiz eta orain herri-hizkuntzak liturgian sartu izan, hala ere, erritozko (legezko, liturgiako) batasunari eusten dio.

Ik. Eliza Katolikoak; Eliza mendebaldarra.

Eliza liberala

Eliza anglikanoan, goikoaren eta behekoaren arteko erdibidea jarraitzen dutenena, *dogmen eta *fede-aitormenen ulerpen zabala eta liberala defenditzen dutenena. Teologia historiko-kritikoaren eragin berezi jasan du